

EGUTEGIA

Hilabete baten egutegia duzu argazkian. Ongi begiratzeko baduzu erabat bete gabe dagoela konturatu zara. Lehen lana horixe duzu: egutegi hau betetzea.

A	A	A	O	O	L	I
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11						
						31

ERANTZUN

25a jaieguna da. Asteko zein egun izango da?

Zein egun da azken igandea?

Zein egun da azken asteartea?

29a igandea al da?

ARIKETAK

1. Bete ezazu falta dena.

Asteartea + 4 egun =

Osteguna + 6 egun =

Ostirala + 10 egun =

Igandea + 15 egun =

+ 3 egun = astelehena

+ 5 egun = osteguna

+ 9 egun = ostirala

+ 7 egun = larunbata

+ 2 egun = asteazkena

2. Urtean 12 hilabete daude.

Zein hilabete dituzte 31 egun?

Zein hilabete dituzte 30 egun?

Hogeita zortzi eguneko hilabete bat dago, zein da?